

ZAKILIXUT

© Olariagak



Azken orduan opari bila

■ *Dendak jendez gainezka daude, Gabon giroko erosketa oparoak direla eta*

MERKEALDIA Errege osteko egunera arte hasten ez bada ere, dendak jendez gainezka daude Gabonetako azken orduko erosketak direla-eta. Batzuek Gabon gaueko eta Eguberriko jatordu onak egiteko jan eta edari bereziak erosten dituzten bitartean, beste batzuk opari bila dabiltza azken orduan.

Janari prestatua saltzen duen Bilboko denda baten aurrean jende ilara luzeak izan dira azken egunotan. Ilaran zain zegoen Julia izeneko etxe-koandrea batek kontatu zigunez, «egun hauetarako oso gauza bereziak nahi izateaz aparte, Gabonetako prestaketak eta erosketak direla medio ez dut denbora askorik izaten, horregatik, hemen enkargatzen ditut hilabete bat lehenago». Bilbotarren artean oso ospetsuak dira denda horretako bakailao Ranero erara, piper beteak, kroketak eta marraskiloak, adibidez.

Bestalde, lagun eta senideei Olentzeroren sorpresa emateko asmoarekin, jende ugari aurkitu genuen atzo opari bitxiren baten bila. Opari bitxia bezain zaila, batzuek ez baitzekiten zer erosi ere. Hala, Areilza Doktorea kaleko opari-denda baten barruan bueltaka ari zen adineko bikote bateko gizonak honela erantzun zion laguntzera hurbildu zitzaion saltzaileari: «Begiratzen ari gara, ea horrela argitzen garen, guk geuk ez baitakigu zeren bila gabiltzan eta».

Beste batzuek, osterara, ez zuten horrenbesteko pazientzia eta ikusten zuten gustuko lehenengo gauza erosten zuten, eta, gainera, merkea ezinez gero hainbat eta hobe. Gran Via kaleko liburu-denda baten liburuak begiratzen zebilen Jone Arregi zitzaigun: «Honela-koetan, errazena egiten dut. Liburu-denda baten sartzen naiz, eta ordu erdian etxeko guztiei liburu bana erosten diet, eta kito. Hamar mila pezetarekin opari guztiak egiten ditub».



Gizon horren etxera Olentzero helduko da, seguru.

XOUSE SIMAL

Azken orduko
 erosleen
 zoologiko berezian
 jokabide ezberdineko
 espezie ugari eta
 bitxiak daude

Jonerekin batera Amaia Urrutia laguna zegoen, eta berak ere antzera jokatzeko duela esan zigun. «Ni, liburu-denda baten beharrian, horietako lurrin-denda handi batean sartzen naiz, eta bakoitzari gauza bat erosten diot; nezeser bat, lurrin bat, mukizapiak, makilajea eta horrelako gauzak. Horiiek beti eskertzen dira, beti datoz ondo».

Dena dela, badira denboraz ibili arren azken orduan beti zerbaitek erosten dituztenak ere. Amaiak seme-alabentzako opariak aspaldi erosi eta ondo gordeak baditu ere, oraindik seme txikiak Olentzerori eskatu dion robota falta zitzaion,

eta azken ordura arte ez zuen amore emateko asmorik. «Ez dakit zenbat dendatan begiratu dudana, eta toki guztietan esaten didate amaituta dagoela. Aurkitzen ez badut, Erregentarako utzi beharko dut...»

Azken orduko erosleen zoologiko berezian, aipatutakoez gain beste espezie batzuk ere aurkitu genituen. Opari zerrenda luze eta diru zorro oparo batekin, azken orduan izan arren inolako arazorik gabe, gogoko dituen opariak erosten dituen. Horrelako espezieak batez ere disenatzaile ospetsuen dendetan aurkitu genituen.

Bada beste espezie bitxi bat ere: ezaugarri nagusi praktikotasuna duena; postal-denda baten aurkitu genuen. Talde horretakoa da Igor Goiriarena. Berak postal sorta bat erosi eta bakoitzean oparitu duena idazten du. «Merkealdia hasten denean bakoitzari agindutakoa erosten diot eta, gainera, orain baino dexente merkeago eta lasaiago. Eta horrela denok pozik.

Gorane Agirre

BILBO

kasu!

► Ozeano Atlantikoa ontzi pneumatiko batean zeharkatu du gizoneko batek

Bidaia harrigarria burutu berri du Arkadiusz Pawelek poloniarra, ontzi pneumatiko xume batean -4,4 metro luze, 1,85 metro zabal- bakar-bakarrik zeharkatu baitu Kanariar eta Barbados uharteen arteko bidea. Bidaia egiten berrogei egun eman ditu.

► Gasteizko Inauterietako kartela hautatu dute

Lehiaketa egin dute Gasteizko Udalean 1999. urteko Inauterietan zein kartelek iragarriko dituen hautatzeko, eta aukera aho batez egin dutela esan zuten atzo. Epaimahaikide guztiek Basilio Astulaz artistaren kartela hautatu dute, aditzera eman dutenez arrunt ikusgarria baita.

► Tau taldeko jokalariek ospitaleko haurrekin

Ohikoa bihurtu da Gasteizen Tau saskibaloi taldeko jokalariek Gabon egunean ospitalean dauden haurrei egiten dieten bisita. Gaur ere, Sergio Scariolo entrenatzailea lagun dutela, Txagorritxu eta Santiago ospitaleetan izango dira.

► Nafarroako kirolariak izadiarekin bat

Atzo Nafarroako hirurogei kirolari elkartu ziren Erreniegan, duela urtebete bertan landatutako hainbat arbola zaindu eta haien ingurunea garbitzeko. Nafarroako hainbat agintaririk eta hurrek lagundu zieten horretan. Babes ezazu arbola bat kanpainaren barruko ekimena izan zen.